



Multimusikala: jaialdi bikain autogestionatua

Multimusikala elkarteak frogatu du autogestioaren bidetik ekimen emankorrrak burutu daitezkeela esaterako asteburuan Michelingo Tenis Eremuan eta herriko zenbait tabernetan 9. aldiz egin den Multimusikala jaialdia. Kalean giroa hotza izan da baina ez kontzertuetan. Hainbat herritar eta kanpotarrek gozatu dute musika estilo ezberdinaz. /4-5 ETA 8



Alboka abesbatzak gabon kantak eskaini zituen igande eguerdian kultur etxean, aurtien bereziki, Andaluzia eta Extremadurakoak.

Eguberriko kontzertuan gabon kantak eskaini zituen Albokak

Andaluzia eta Extremadurako gabon kantak izan ziren Alboka Abesbatzak atzo igandea eskaini zuen emanaldiko berezitasun eta ardatza.

Hauekin batera, beste herrialde batzuetako eta Eus-

kal Herriko gabon kantak ere eskaini zituzten.

Garai hauetako abestiez osatutako programaz gain, Kristina Perez-Abreu eta Montserrat Latorrek zuzentzen duten Lasarte-Oriako abesba-

tzak beste "opari" batzuk eskaini zieten ikusleei. Kantatutako abesti "estra" horien artean ziren "Ilusi Nobis" ezaguna eta Ignacio Olaizolak sortutako bat, publikoan lehen aldiz kantatzen zenez,

aurkezleak estreinaldi mundial gisa aurkeztu zuena.

Ikusleek oso ondo pasa zuten igande eguerdiko kontzertuan eta txalo zaparrada ugari eskaini zizkieten Alboka Abesbatzako partaideei. •

Ibon Casas-en "rock itsua" kultur etxean

Ibon Casas Hernaniko musikariaren abestiez gozatzeko aukera izan zen ostiral iluntzean kultur etxean, Xpresionk ekimenak eta Udalak antolatzen dituzten kontzertuen egitarauaren barruan. Casas itsua da, baina gitarra eman eta mikrofono baten ondoan jarriz gero, ez du arazorik abesti bikainak jotzeko. Rock itxua sortu du, abesti indartsuak, letra bereziki eta Kultur Etxeko kafetegian bildu zirenek ondo pasa zuten beste gitarra jotzaile baten eta ordenagailuz sorturiko eritmoen laguntzarekin eskaini zuen kontzertuan. •



KIROLA/2

Lasarte-Oriako igerilari gazteek hainbat domina eskuratu dituzte

ALBISTEA/3

Santo Tomas feria burutuko da astearte arratsean sagardotegi kalean

ALBISTEA/6

Aste honetan ikastetxeetan izan da Olentzeroren lagun Xixuko



**KALITATEA
PREZIO JUSTUAN**

ORDUTEGIA

Asteleheneran 09:00 etatik 14:00etara
Asteartetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara
Astearte eta ostiralean arratsaldez ere 17:00etatik 19:30era

**GURE BEZEROEI:
GABON ZORIONTSUAK
PASA ITZAZUE
ETA
URTEBERRI ON!**

**JATEN
DUGUNA GARA!**

**Nagusia 35
Lasarte-Oria
Tel.:943 371946**



Buruntzaldea IKT dominez bete da

XIV Hernani Sarian eta San Esteban Sarian lortu zituzten igerilariak hainbat garaipen

Abenduaren 11an, larunbatean, herriko igerilariarentzat egun oparotsua izan zen. XIV Hernani Saria eta San Esteban Saria ospatu ziren.

Goizeko proban Gipuzkoako igerilari hobereak elkartu ziren eta horien artean Buruntzaldea IKT-ko igerilariak egon ziren.

Guztira 10 domina eskuratu zituzten Buruntzaldeako gaztetxoak. Iñigo Ibarburu, urrea 50 metro tximeleta proban; Mikel Arribilaga, urrea 50 m. bizkar proban eta brontzea 100 m. estiloetan; Itsaso Tolosa, urrea 50 m. bizkar proban; Mikel Esnal, urrea 100 m. libre proban; Naroa Goikoetxea, zilarra 100 m. bular proban; Garazi Alkorta, brontzea 50 m. tximeletan; Haitz Mitxelena, brontzea 100 m. tximeletan; Jone Vazquez, brontzea 50 m. libre proban eta Oier Mitxelen, brontzea 100 m. librean, izan ziren proba indibidualetan saria eskuratu zutenak.

Baina dominez gain, emaitza onak lortu zituzten taldeki-

deek. Aipatzekoak dira Haitz Mitxelenaren 1'03"93ko denbora 100 tximeleta proban eta Mikel Arribilagaren 32" 03a 50 bizkar frogan.

Talde mailan, gainera, neskek erreleboetan bigarren postua eskuratu zuten Fortuna CD taldearen atzetik.

Hernanitik Oartzunera

Arratsaldean, Buruntzaldea IKT-ko txikien txanda izan zen.

Dotore igeri egiteaz gain, lortu zituzten markak eta garaiak aipatzekoak dira, izan ere, parte hartutako proba gehienetan podiumeko lehen tokietara igotzea lortu baitzuten igerilari txiki hauek.

Bizkar estiloan emakumezkoetan Irati Arzalluzek podiuma egin zuen, hirugarren postua eskuratuz; gizonezkoetan, Iker Chavezek laugarren postua eskuratu zuen taldeko denbora onena eginez.

Bular estiloan Jon Sotok hirugarren postua eskuratu zuen, eta bere anaia Mikelek 1.37.20ko marka eskuratu zuen 100 metroan; nesketan, Eneritz



Buruntzaldeko IKT-ko igerilari gazteak garaipen ugari eskuratu zituzten abenduaren 11eko asteburuan

Buizak lehen postua lortu zuen 50 metroan eta bere atzetik oso gertu Leire Cacerdo; 100 metroan aldiz, Ainara Garciak lehen postua eskuratu zuen.

Libre estiloan berriz, 50 metroan, Argoiz Tardio hirugarren geratu zen eta 100 metroan, Beñat Alkorkak 3 postua

lortu zuen bere marka hobetu zuen.

Neskek gogor ekinez

Mutilak ongi ibili baziren ere, txalotzekoak neskek izan ziren lortu zutenagatik.

Nahia Jie 50 metroan txapelduna izan zen nagusitasun

oso; 100 metroan, Maialen Casado izan zen azkarrena eta txapelduna erraztasunez.

Eta azkenik, 1999. urtean kaiotako nesketan Naiara Lizasok lehen metroetatik probaren agintea hartu eta txapelduna izan zen 1.15eko marka eskuratuz. •



Leire Zubizarreta eta Asier Sagasti Gipuzkoako txapelketan lortutako dominekin.

LOKEEn brontzezko judokak

Azken hilabetean, LOKEko judoka gazteek Gipuzkoako eta Euskadiko senior txapelketetan lehiatu dira eta guztira, hiru brontzezko domina eskuratu dituzte.

Gipuzkoako txapelketa

Gipuzkoako senior txapelketa ospatu zen, azaroaren 28an, Hernanin eta bertan bi domin eskuratu zituzten Gorka Aristegiren txikiak.

Gizonezkoetan, Asier Sagasti izan zen 81 kilo azpiko podiumera igo zena; emakumezkoetan, aldiz, Leire Zubizarretak lortu zuen 63

kilo azpiko hirugarren postua.

Euskadiko txapelketa

Era honetara, abenduaren 12n, Erreterian jokatu zen Euskadiko Senior txapelketan Leire Zubizarreta egon zen lehiatzen eta Gipuzkoako txapelketaren antzera, brontzezko domina eskuratu zuen.

Txikiak ere ongi

Hauetaz gain, Eskola kirola egitasmoaren barruan dauden infantil mailako gaztetxoak ere lehiatzen hasi ziren azaroan.

Gorka Aristegi entrenatzaile-

leak jakin arazi duenez, Hernanin egin zen eskola kirola lehenengo jardinaldian Asier Zubizarreta, Haritz Urdangarin, Esteban Garcia, Fermin Balda, Oscar Garrido eta Iñaki Fernandezek parte hartu zuten.

Entrenatzailearen hitzetan, "guztiak sailkatu dira hurrengo faserako eta oso judo ona eginez."

Igande honetan, gainera, infantilek Gipuzkoako taldeko txapelketa izan dute. Edizioa itxi baino lehen, ez dugu lehiaketa honelako emaitzarik lortzerik izan. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitateak: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Ttakun kultur elkarteak antolatuko duen Santo Tomas ferian jai giroa izango da nagusi eta, noski, ez da txerria faltako.

UDAL LIBURUTEGIA Eguberrietako ordutegia

Lasarte-Oriako Udal liburutegiak jakin arazten du, Eguberrietako jai egunetan itxia egongo dela eta abenduaren 22, 23, 27, 28, 29 eta 30ean eta urtarrilaren 5an goizez bakarrik, 10:00etatik 13:00etara, egongo dela irekia.

Era berean, liburutegiak urtarrilaren 3 eta 4ean, ohiko ordutegia izango du, goizez, 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldez, 16:00etatik 21:00etara. •

KIROLA Kirol instalazioen itxiera Eguberrietan

Lasarte-Oriako Udal Kirol Instalazioak 2010 eta 2011 urtearako onartua duen egutegiak agintzen duenez, datozen abenduaren 24, 25 eta 31 eta urtarrilaren 6an Kirol Instalazioak itxia egongo dira.

Errege eguneko bezperan, urtarrilaren 5ean, beriz, Udal-Kirol instalazioak goizez 09:00etatik 13:00etara egongo dira irekiak. •

Erromeria, bertsoak eta euskal giroa bihar Sagardotegi kaleko Santo Tomas ferian

- Taloak, gaztainak eta sagardoa banatuko dira Santo Tomas eguneko ferian
- Taloa egiten ikasteko aukera izango dute bertara hurbilduko diren haurrek

Ttakun Kultur Elkarteak aurten ere ez du huts egingo Santo Tomas egunean eta urtero bezala feria antolatuko du bihar Santo Tomas egunean.

Azken urtetan ohitura den bezala, arratsaldez izango da, 17:00etatik 20:30era Sagardotegi kalean.

Bertan, txistorra, txokolata eta gazta taloak eta momentuan danbolinean erretako gaztainak dastatzeko aukera

eskainiko zaie hurbiltzen diren guztiak, eta Otegi sagardotegiko sagardoa dohan banatuko da.

Gainera, aurten etxeko txikitxoek taloak egiten ikasteko aukera izango dute antolatutako tailerlean.

Eta herritarrek talo eta gaztainak dastatzen dituzten bitartean, txerria ikusi ahal izango dute Sagardotegi kalean.

Postu eta txerriaz gain, aurreko urteetan hasitako

bideari jarraituz, erromeria egingo da.

Amalur eta Xumela

Hasteko, arratsaldeko lehen orduetan, Amalur trikitilari taldea eta Xumela abesbatza arituko dira plaza girotzen eta ondoren, trikitilari eta txistularien txanda izango da. Euren jarraituko dute arratsaldea alaitzen.

Arratsaldeak aurrera egin ahala, Ttakun elkarte

tso-eskolako kide batzuen saioa izango da erromeriararen ataria.

Erromeria herrikoia

Erromeria erabat irekia izango da eta dantzan aritzea gustatzen zaion edonork, haur, gazte edo helduak, parte har dezake, halaber Erketzeko erromeri ikastaroko ikasleak bertan izango dira, trikitilari eta txistularien doinuekin oinak astintzen. •



Gozatzeko aukera dute haurrek 28an.

EGUBERRIAK Uretako festa abenduaren 28an

Eguberrietako egitarauaren barnean, Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak umeentzako uretako festa antolatu du abenduaren 28rako.

Goizeko 9:30etatik 12:30a bitartean, igerian dakiten, 5 eta 12 urteko haurrek uretan puzgarri, txirrista eta ur jokoekin gozatzeko aukera izango dute.

Bazkideentzat doan izango da eta ez bazkideek sarreara ordaindu beharko dute. Kirol Zerbitzuak gogora arazten du, haurrak bakarrik sartuko direla.

Honen ondorioz, igerilekuko erabiltzaleei jakin arazten die, instalazio hau arestian aipatutako ordutegian helduentzako itxia egongo dela. •

Intzako infantilak, Gipuzkoako Kopako finalean

Lasarte-Oriako Intza Pilota Elkarteko bikote bat infantil mailako Gipuzkoako Kopako finalerako sailkatu zen larunbatean.

Gipuzkoako Txapelketa nagusirako sailkatzen ez diren bikoteen artean jokatzeko dute Kopa eta Eneko-Sarasola Lasarte-Oriako bikotea sailkatu da datorren ostegun hilaren 23an arratsaldeko

7etan jokatu den finala jokatuko.

Hain zuen ere Intza Elkarteko beste bikote baten aurrean nagusitu ziren Eneko eta Sarasola larunbat arratsaldean Michelinen jokatu zen finalerdian.

Jagoba eta Mendizabal-ek osatutako bikoteak azkenean 8-1 eta 8-2 emaitzarekin galdu zuen aipatutako Eneko

eta Sarasolaren aurka eta beraz bikote honek jokatu du finala.

Sistema berria

13 urte dituzte infantil mailako lehen urteko pilotarietako txapelketa honetan 8 tantoko bi partida jokatzeko dituzte. Berdinketarik baldin badago, hau da, bikote bakoitzak joko bana irabazten badute hauste-

ko beste bat jokatzeko dute 4 tantora.

Larunbat arratsaldean Michelin-en jokatu zen finalerdian ez zen beste joko bat jokatu beharrik izan, bietan Jagoba eta Mendizabal erraz nagusitu zirelako, 8-1 eta 8-2. Intza pilota elkarteko ordezkariak atzo ez zekiten oraindik noren aurka jokatu dute finala. •



Aramazka herriko taldeak izan zen lehenengo Michelingo oholitz gainean.



Hiloz herriko taldeak lanabat arrasaldiak jo zuten lagun ez betez zen Abenit dabeman.



Zen Myx-eko abeslariak aitoru zuten ostrialan lehen aldiz berritu dela tamerra jantzita, baina giro beroa izuz zuela zikien artan.



085: Kataluniarak Banyolas herriko taldeak parte hartu du Multimusiak. Xirimiri jo zuten. Betez hogei lagunekin eorri dira autobuzan.



Dorbaneko Nairoso taldeak kontzertu bereziak eskaini zuten Larunbat guzian.

9. multimusikala Kanpoan hotz barruan bero

Multimusikala elkarrekin berriz frogatu du autogestioaren bidez ekimen emankorrak aurrera ater daitezkeela herrian

JON ALZUNA

ikusleentzako parte hartzeko, gozatzeko eta ondo pasatzeko gogoak soilik eta hauek ere ondo erantzun zuten.

Aurkezpen berezia

Ostrialdeko aurkezpen ekitaldian, Jesus Mari Zaballok Lasarte-Oriako alkate eta antolatzaileen arteko hartuemanen parodia antzezten zuten herriko gazteek. Udak adosteko negoziaketan, Udak eskatu duen 900 euroko fidantza, Michelingo komunak erabiltzeko dibekoa... gurbi, alkate eta bere bizkarrean eta gazteen arteko tenis partida batez induduta.

Orduan antolatzaileen bildiko gazte batak emanenaren filsofia da heburak azpimarratu zituen, hasteko "jalaldi honen antolakuntza osokiro autogestioan oinarritu dela" nabarmenduz eta ondoren ekimenaren nondik, nola eta zergatik sortu den aipatuz: "Orain 10 urte Txorimalo gazte kolektiboen aurrean kokatua den Michelingo tenis pista Multimusikala egiteko. Bi herogailu eraldio hotzari aurre egiteko, pantaila erraldioa bideoak emateko, barra luzeta bazter batean ikuslearen egarria asetzeko, oholitz ederrean musikariak eroso sentitzeko, musika ekipu on bat... ez zen ezer falta jaialdi bikaina burutzeko,

habarrunak bazkaldu zituzten



Aldi berean jo zuten Aurka-k Suzuran, Kilam-ek Obalenen eta Oreandiek Xirimiri.

Michelinen, baina, gero, arratsaldean aurrera, giro beroa gozatzeko eta ondo pasatzeko gogoak soilik eta hauek ere ondo erantzun zuten.

Kataluniarak Xirimirin

19-00etarako aurrera, giro berezia eman zuten kontzertuak. 2010eko multimusikala jaialdia: Aorak bizitzan lehenengo aldiz kantatu zuten oholitz batean gainean kamara jantzita, baina aldi berean behetxo berotasuna sentitu zuela adierazi zuen. Horiek izan da 9 multimusikala. Hoz egin badu ere, kontzertuek izan diren herrikoak eta kampanak ondo pasatzeko gogoak erakutsi dituzte, eta giro beroa izan da kontzertu guztien.

Orduan antolatzaileen bildiko gazte batak emanenaren filsofia da heburak azpimarratu zituen, hasteko "jalaldi honen antolakuntza osokiro autogestioan oinarritu dela" nabarmenduz eta ondoren ekimenaren nondik, nola eta zergatik sortu den aipatuz: "Orain 10 urte Txorimalo gazte kolektiboen aurrean kokatua den Michelingo tenis pista Multimusikala egiteko. Bi herogailu eraldio hotzari aurre egiteko, pantaila erraldioa bideoak emateko, barra luzeta bazter batean ikuslearen egarria asetzeko, oholitz ederrean musikariak eroso sentitzeko, musika ekipu on bat... ez zen ezer falta jaialdi bikaina burutzeko,

aurrean kontzertu bikaina eskaini zuten.

Herritiko taldeak

19:30etarik aurrera, Suzurri jentziaren lehenengo oholitz gero, kontzertuak. 2010eko multimusikala jaialdia: Aorak bizitzan lehenengo aldiz kantatu zuten oholitz batean gainean kamara jantzita, baina aldi berean behetxo berotasuna sentitu zuela adierazi zuen. Horiek izan da 9 multimusikala. Hoz egin badu ere, kontzertuek izan diren herrikoak eta kampanak ondo pasatzeko gogoak erakutsi dituzte, eta giro beroa izan da kontzertu guztien.

Orduan antolatzaileen bildiko gazte batak emanenaren filsofia da heburak azpimarratu zituen, hasteko "jalaldi honen antolakuntza osokiro autogestioan oinarritu dela" nabarmenduz eta ondoren ekimenaren nondik, nola eta zergatik sortu den aipatuz: "Orain 10 urte Txorimalo gazte kolektiboen aurrean kokatua den Michelingo tenis pista Multimusikala egiteko. Bi herogailu eraldio hotzari aurre egiteko, pantaila erraldioa bideoak emateko, barra luzeta bazter batean ikuslearen egarria asetzeko, oholitz ederrean musikariak eroso sentitzeko, musika ekipu on bat... ez zen ezer falta jaialdi bikaina burutzeko,

buru batez denentzako musika eta asko herrian eskaintzen dute egitarau zabala.

Antolatzaileak pozik zeuden antolaketa-erkin eta zaleentzako parte hartzearekin. Musika eskola ezberdin ugari ekarri dituzte herria eta erantzun beroa jaso dute herritarren aldeak. Ostralean hain bat izan da Michelin eta inguruetan. Gazteak eta hauen gurasoak ere ibili dira kontzertuetan. Asteburua hotza izan da eta jaiari zuten Michelinen, eguraldiari besterik ez gero, baina Multimusikalearen tenore jarraitzaileak izan ziren Multimusikalearen tenore jarraitzaileak izan ziren. Hainbat soka horiek izan dadin, aste...

Denentzako musika
Eta bukatzeko Mery jaiak kolektibo Dik festak amaiera bikoiztuz jarri zuten Michelinen, lagun eta Abeniten ere Dik festak jarraitzaileak izan ziren Multimusikalearen tenore jarraitzaileak izan ziren. Hainbat soka horiek izan dadin, aste...

ERRREKATXO
JAIATZETAN

Gosariak
Hamaiketakoak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Urtebetetzeak

KARTA
eta
EGUNEKO MENUA

NAGUSI BERZAK
Ordutegi berria
Giro berria

WIFI GUINEA

Orla Etorbidea Ibaiondo Poligonoa 4 • Tel.: 943 365557
Lasarte-Oria

Xixukoren bisita, Eguberrien iragarle

Lasarte-Oriako ikastetxeak bisitatu ditu egun hauetan Olentzeroren laguntzaile bereziak

Xixuko, Olentzeroren laguna, Lasarte-Oriako ikastetxeetan izan zen pasa den astean.

Olentzero egun hauetan lanaz lepo dabil, umeak onak izan diren edo ez erabakitzen, opariak aukeratzeko, oparitako paperean biltzen, zakutan sartzen... horregatik, Xixuko bere laguntzaileak haurren eskutitzak jaso ditu gure herrian.

Haurrak irrikan

Landaberri ikastolako eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko txikiak Xixuko ikusteko irrikan aurkitu genituen, gainera ongi etorria emateko askok marrazkiak eman zizkieten opari gisa.

Xixukok haurrei Olentzeroren berri emateaz gain, magia truku pare bi egin ziz-

kien herriko haurrei. Hori koloreko arrosa triste batzuk, lore sorta koloretsu eta eder batean bilakatu zituen. Hone-taz gain, oraindik herrian ikusi ez dugun elurra jaitsi zuen Olentzero bizi den mendi tontorretik.

Olentzeroren bisita

Xixukok ikastetxeetan jasotako eskutitzak eraman dizkio Olentzerori.

Zuk aukera izan ez baduzu, ez larritu, azken aukera duzu, abenduaren 24an. Izan ere, egun horretan, Olentzero eta Xixukok herri desberdinak bisitatu dituzte eta ezin Lasarte-Oriarekin duen hitzordura falta.

Ikazkinak eta bere lagun bereziak Andatza plazan egongo dira arratsaldean. Ez ahaztu! •



Xixukok Landaberri ikastola bisitatu zuen. Olentzeroren berri eman eta eskutitza idaztea ahaztu ez dezaten gogoratu zien.



Margo eta eskutitz ugari eman zizkieten Xixukori Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasle gazteek



Ezker abertzalearen legalizazioaren aldeko Lipdub-a. Abertzalearen legalizazioa eskatzeko Lipdub-a grabatu zuten Lasarte-Oriako Kale Nagusian. Grabaketa koloretsu eta alaia izan zen, bildu zirenak ilaran jarrita filmatu zituzten eta ondoren musikaz lagunduta San Pedro elizaraino egin zuten kalejira ere bai. Legalizazioaren aldarria nagusitu zen jendeak zeramatzan, pankarta, letra eta kukurutxoetan. •

Kultur Etxea bete egin zen 100 m² antzezlanara ikusteko

Maria Luis Merlo, Miriam Diaz-Aroca eta Jorge Roelas aktore ezagunak ikusteko ia bete egin zen Kultur Etxea larunbat arratsaldean.

“100 metro karratu” antzezlanak eguneroko arazoak jorratzen ditu, umorea eta samina nahasten dira, baina bi emakume eta etxebizitza saltzaileen arteko hartuemanek ikuslearen barre algarak eragin zituen

ia ordu eta erdi iraun zuen emandiko une askotan.

Arratsaldeko 8etatik aurrera hiru pertsonaiek une gozo eta tristeak tartekatuz zituzten, ospakizun eta atsekabeak, eta emandiko amaitu zenean irribarrez atera ziren ikusle gehienak.

Txalo euskal produktoreak parte hartu du lanaren ekoizpenean Cinco Jotas eta Vertigorekin batera. •



Maria Luisa Merlo eta Miriam Diaz-Aroca ezagunak, larunbatean, Kultur Etxean.

Egunero

Erakusketa

METAMORFOSIAZ, Jasone Irigoien margo erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

Erakusketa

DENBORAREN MUGETAN, Migel Angel Oriberen erakusketa ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Astelehena, 20

Tailerra

EGUBERRIETAKO POSTALAK egingo dituzte familia eta lagunekin. Atsotakar zaharren egoitzan, 17:30ean.

Asteartea, 21

Hitzaldia

GAITASUN KOGNITIBOEN BULTZAPENEN SAIO IREKIA izango dute 11:00etan. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera gozogintza tailerra izango dute eguneko zentroan eta egoitzan. Atsotakar zaharren egoitzan, 11:00etatik aurrera.



Eguberriei ongi etorria musikaren bidez

UDAL MUSIKA ESKOLAK *Gabonetako kontzertua* eskainiko du aurten ere.

Ikasturtea hasi berria bada ere, Musika Eskolako haur, gazte eta helduek urtero bezala kontzertu hunkigarria eta polita antolatu dute Eguberriei ongi etorria emateko. Emaldia gaur bertan izango da Manuel Lekuona kulturetxean eta sarrera beti bezala, doan izango da.

GAUR, ASTELEHENA 20 KULTURETXEAN 19:00ETAN

Festa

SANTO TOMAS JAIA ospatuko da eta txerria ikusgai egongo da, taloak eta gaztainak salgai eta erronomia ere izango da. Sagardotegi kalean, 17:00etan, EUSKARAZ.

Asteazkena, 22

Haur parkea

EGUBERRIETAKO HAUR PARKEA zabalik egongo da abenduaren amaiera arte. Michelingo Udal Kirolgunea, egun osoan.

Kontzertua

MUSIKÉ TEKNE taldearen emaldia. Sarerra, doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.



Erakustaldia

SOINKETA TALDEAREN erakustaldia. 11:40ean Atsotakarreko langileen emaldia. Arratsaldean berriz 16:00etan fabulen irakurketa eta hausnarketa Eguneko zentroan eta 17:30ean aukeratutako ipuinak antzeztuko dira. Atsotakar zaharren egoitzan, 11:00etatik aurrera.

Oharrak

Landaberriko jaialdiko sariak

Larunbatean, abenduaren 18an Landaberri ikastolako jaialdian zozketatutako sarien zenbakiak honakoak dira: 1. Saria: 1.378; 2. Saria: 470; 3. Saioa: 1.791. Saria jasotzeko epea hilabetekoa da. Saria jasotzeko ikastolatik pasa.

Maria Auxiliadoraren meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da abenduaren 22an arratsaldeko 17:00etan.

Jaiotzen lehiaketa

Danok Kide Guraso Elkarteak aurten ere XVIII. Jaiotzen Lehiaketa antolatu du. Lanak abenduaren 20an eta 21ean entregatu behar dira 18:00etatik 20:00etara Blas de Lezo kaleko egoitzan. Jaiotzek 80 x 60 zm.ko neurria izan dezakete gehienez. Euskarri sendoa ez duen jaiotzik ez da onartuko, ezta lehiaketa honetara aurreko urteetan aurkeztutakorik ere. Banaka nahiz taldeka har daitete parte beti ere lan bakarra aurkeztuta.

Sahararen aldeko egutegia

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 kordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix, Sustrai, Ilargi, Iñaki eta Artizar tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, janariaren euskal karabana antolatzen laguntzeko bideratuko da.

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan abenduaren 27an arratsaldeko 18:30etik 20:00era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Gabonetako Txokoak

Urtero bezala, Ttakunek Eguberrietako Txokoak antolatu ditu. Izena emateko epea zabalik dago eta apuntatzen diren lehenengo 40 haurrak hartuko dira. Hiru aukera ezberdin daude izena emateko: lehenengo astea, bigarrena edo biak. Informazio gehiagorako deitu 943 371448 telefonora, bidali mezua aisia@ttakun.com helbidera edo Ttakunetik edo Amaraun ludotekatik pasa zaitzeteke.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Eskutitzak

Aupa Euskal Herriko Futbolariak!!

Azkeneko bi urtean ez da Euskal Herriko futbol selekzioaren gabonetako lagunarteko partidarik izan, EAEko Federazioa eta jokariak ez zeudelako ados oinarrietan -selekzioaren ofizialtasunari buruz, batik bat-, orain ere ez dira akordiora heldu, baina partida azkenean jokatu egingo da. 'Euskal selekzioa' izenpean ariko da taldea. Hain zuzen, abenduaren 29an izango da partida, Bilbon, San Mamesen.

Futbolarien borondateari esker jokatuko da lagunarteko partida hori. "Federazioaren jokabidea etsigarria izanagatik ere aurrera egitea erabaki dugu", dio jokalarien oharrak. "Partida hau aro baten amaiera eta berri baten hasiera izatea nahi dugu. Aurten jokatzeke prest

gaude, baina aurrera begira beste bide batzuk landu beharko direla uste dugu".

Federazioarekin bilerak izan dituzte jokalariek, eta berriro nabarmen geratu da ikuspegi desberdinak dituztela. Izenean ez da ados jartzeko arazorik izango -'Euskal selekzioa'-, baina jokalariek ofizialtasunaren aldeko pauso eraginkorrak emateko eskatzen diete zuzendariari. Horiek jokalariei ez diete konpromiso garbirik erakutsi. "Euskadiko Futbol Federazioak ez du Euskal Herriko selekzioaren ofizialtasunaren bidean urratsak egiten saiatzeko borondaterik. Partidak etekin ekonomikoa ateratzeko helburu soilarekin antolatu nahi ditu, hori da selekzioaren inguruan duten benetako kezka eta arrazoi nagusia. Guk, euskal futbolariok, Euskal Herriko selekzio ofiziala lortzeko bidean ahalguz ahal pixka bat eskatzen dugu, besterik ez; munduko

beste edozein futbol jokalarik bezala zein selekzioan jokatzea erabakitzeko eskubidea baino ez", dio jokalarien oharrak.

Futbolariari, ordea, iruditu zaie beste urtebete partida ez jokatzea askotxo dela eta aurten, behintzat, ariko dira. Aldarrikapen eguna bihurtzeko dei egin dute. Partidaren aurretik zelaian argazkia atzerako dute, Nazio bat leloarekin, eta Euskal Herriko mapa azalduko da. "Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa ordezkatzeko dituen selekzioa da gure selekzioa. Ez gara Espainiako selekzio autonomiko bat. Nazio izaera duen selekzioa da gurea eta ofizialtasuna behar dugu, munduaren aurrean gure Herria ere ordezkatu egin dadin".

Horretaz gain, Esaitik manifestazio nazionala antolatu du hilaren 29rako Bilbon, euskal selekzioaren eta

Venezuelaren arteko futbol partidaren egunean. "Nazioa, ofizialtasuna. Lortu behar dugu, lortuko dugu" leloa izango du manifestazioak eta 18.30ean abiatuko da Bilboko Arealetik.

Euskal selekzioak eta Venezuelak jokatuko duten partidaren eguna aldarrikapen eguna bihurtu nahi du Esaitik eta egun osorako egitaraua prestatu du, pailazoan emanaldi, triki-poteo eta musika emanaldiekin, besteak beste. Partida ikusteko pantaila erraldoia ere jarri nahi dute, eta horretarako Bilboko Udalarekin harremanetan jarri dira.

Beraz, lasarteoriar guztiak animatzen ditugu Bilboko aldarrikapen-festa horretan parte hartzea, Euskal Herriko selekzio ofizialak behar ditugulako!

Lasarte-Oriako Bai Euskal Herriari



Kalejira osoan zehar haurrak eta helduak dantzan eta kantuan aritu ziren. Egurdiala lagun, giro ezin hobea jarri zuten.

Egun osoko euskal jai ederra

Arrakastatsua izan da Multimusikalaren barruan antolatutako lehenengo Lasarte-Oriako Euskal Festa

MARI KARMEN ORMAZABAL

Goizean hasita euskal giroa nabarmendu zen atzo herrian, Multimusikalaren barruan antolatutako lehenengo Lasarte-Oriako Euskal Jaian.

Kalejira jendetsuarekin eman zitzaion hasiera egunari. Txistulariak, Amalurreko trikitilariak, Erketzeko dantzariak, Xumelako kantuzaleak eta Kukukako partaideak aritu ziren herriko kaleak girotzen eta herritarrak esnatzen. Kantujira Michelingo gunean bukatu zen Kukuka taldearen nabestia dantzatzuz. Ondoren, indarrak hartzeko Ostadarrek prestatutako hamaiketakoan pintxo beroa hartu eta hau-

ren jolasen tartea hasi zen. Txandaka, gaztetxoek eta gero txikiak, zaku lasterketan eta sokatiran ikusi genituen, zutenak eta bi emanez beraien taldeak irabazteko.

Bazkaria

Ehun lagunetik gora bildu ziren Arrieskalleta elkarteak prestatutako bazkaria dastatzeko. Timon tabernakoak ere hurbildu ziren bazkarian abesti batzuk eskaintzera. Tabernak honek ere parte hartu du Multimusikalean, karaoke gauak izan dira bertan ostiral eta larunbatean. Gero, bazkaloisteko giroaren ardura Fermín Balentziak eta bere gitarak hartu eta kantuan jarri zituen inguruko guztiak.

Jarraian, Beñat Iguaran eta Unai Gaztelumendi bertsolariak saio polita egin zuten *goi-goitik*.

Dantza eta erromeria

17:00etatik aurrera dantza tailerra egon zen Erketzen eskutik. Dantzari bat gidari zela, eta plazan beste batzuk erakusle, nahi izan zuen orok dantzak ikasi eta dantzatzeko aukera ederra izan zuen. Parte-hartzaile guztiak ederki gozatu zuten.

Euskal Jaieri eta era berean 9. Multimusikalari amaiera emateko, Itzartu talde lasarteoriarrek erromeri paregabea eskaini zuen. Modu ezin hobean bukatu zen beraz jaiak, dantzatzuz eta kantatzuz. •



Etxeko txikiak ere animatu ziren jokoetan parte hartzera, laguntzarekin bazan ere.



Bertsolariak "altutik" aritu ziren bata bestea zirikatzen.



Itzartu taldeak eman zion amaiera Euskal Jaieri eta 9. Multimusikalari.



Arratsaldeko dantza-tailerrak jarraitzaile ugari izan zituen. Ederki pasa zuten parte hartu zutenek!